



PORTUGALETEKO UDALAK ETA ELAI-ALAI KULTUR ELKARTEAK BATERA JARDUTEKO HITZARMENA, PORTUGALETEKO NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA ANTOLATZEKO ETA BURUTZEKO

Portugaleten elkartu dira, 2019ko ekainaren 5ean,

Batetik, **Mikel Torres Lorenzo jauna**, Portugaleteko alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan diharduela, Udalak P-4809100-C IFK duelarik eta egoitza, berriz, Solar plazan (z. g.),

eta bestetik, **Aitor Beitia Gorriaran jauna**, NAN zenbakia 22716043R duela eta Elai-Alai Kultur Elkarteko presidentea delarik (IFK: G-481164631); hona hemen elkartearen helbidea: Santa Maria kalea, 10, behea, Portugaleta.

Biek aitortu diote elkarri egintza honetarako lege gaitasun nahikoa dutela eta hauxe

AZALDU DUTE

LEHENIK.- Portugaleteko Udalaren helburuetako bat dela kultur hedapeneko egitarauak garatu, sustatu eta indartzea, hala Kultura Sailaren bitartez nola udalerriko elkarteekiko lankidetzan.

BIGARRENIK.- Elai-Alai Kultur Elkartea dirurik irabazteko asmorik gabeko entitatea dela, zeinen xedea folklorea sustatu eta hedatzea baita eta bereziki Portugaleteko Folklore Jaialdi Nazioartekoa antolatzea.

HIRUGARRENIK.- Kontuan hartuta Portugaleteko Udalak eta Elai-Alai Kultur Elkartek helburu eta xede komunak dituztela folkloreaki dagokionez, Udalak lankidetzarako esparrua ezarri nahi duela aipatutako jarduera horren burutzapena bermatzeko.

KLAUSULAK

1.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Portugaleteko Udalak konpromisoa bereganatzea Portugaleteko Folklore Jaialdi Nazioartekoaren 45. edizioa antolatzen eta burutzen lagunduko duela eta horretarako dirulaguntza izenduna emango duela. Dirulaguntza horren zenbatekoa 23.850,00 eurokoa izango da. Jaialdiaren ezaugarriak adierazita daude txostenaren jardueren oroitidazkia izeneko dokumentuan.

2.- ELAI-ALAI KULTUR ELKARTEAREN BETEKIZUNAK

Elai-Alai Kultur Elkartek bete beharko ditu Dirulaguntzen Lege Nagusiko 13. eta 14. artikuluetako onuraduna izateko beharrak. Hauexek dira betebeharrak horiek:

- Dirulaguntzaren xedea den jarduera, Portugaleteko Folklore Jaialdi Nazioartekoaren 45. edizioa, burutzea, eta aurrera eramatea, giza baliabide eta baliabide material egokiak erabiliz jardueraren helburua betetzeko.



- Dirulaguntza eman duen organoaren egiaztapenak jasotzea, baita beste organo eskudunek egin lituzketen finantza-kontrolak ere. Horiei behar duten beste informazio ematea.
- Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea, diruz lagundu den jarduerarako beste dirulaguntza mota edota diru sarrerak jasotzekotan. Jakinarazpen hori egin behar da bigarren dirulaguntza horren berri eduki bezain laster eta, nolana ere, jasotako diruaren erabileraren zuriketa egin aurretik.
- Garbi adieraztea kultur elkartearen jarduera Portugaleteko Udalak diruz lagundu duela, jarduerari buruzko propaganda eta informazio grafiko, idatzi eta soinuzkoaren ale guztietan.
- Elai-Alai Kultur Elkarteak nahikoa aurretiaz aurkeztuko du agiri bat, tributu-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak barne, egunean dituela egiaztatzeko.
- Kontabilitateko liburuak, diligentziatutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako bestelako dokumentuak eskuragarri edukitzea, onuradunari aplikagarria zaion sektoreko eta merkataritza arloko legeriak kasuan kasu eskatzen duen bezala, egiaztapen eta kontrol ahalmenak egoki gauzatzen direla bermatzeko xedez.
- Jasotako funtsaren egiaztapenak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan litezkeen neurrian.
- Dirulaguntzen legearen 37. artikulua ezarritako kasuak suertatuz gero, jasotako dirulaguntza itzultzea.

3.- ZENBATEKOA

Portugaleteko Udalak konpromisoa berenganatu du Folklore Jaialdi Nazioartekoaren 45. edizioa antolatzen lagunduko duela eta horretarako 23.850,00 euroko dirulaguntza emango duela. Zenbateko hori udal aurrekontuaren 08.3340.48127 diru-sailaren kargura egongo da.

Kopuru hori bateragarria izango da Elai-Alai Elkarteak beste administrazio eta erakunde publiko eta pribatuetatik jaso ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin. Kultur elkarteak jakinarazi behar du dirulaguntza horiek eskatu dituen ala ez eta, jasotzekotan, horien zenbatekoa ere jakinarazi beharko du.

Dena dela, jasotako dirulaguntzetatik eta beste jatorri batzuetatik lortutako finantzaketaren kopuru osoa ezin izango da jardueraren kostua baino altuagoa izan. Baldintza hori bete ezean, jasotako gehiegizkoa itzuli beharko du elkarteak.

4.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagungarriak izateko, gastuek baldintza hauek bete behar dituzte: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala zuzentzea, jardueraren garapenerako beharrezkoak izatea zalantzarik gabe eta hitzarmenak ezarritako epe barruan burutzea.



Ez dira diruz lagunduko elkartearen gastu orokorrak, ezta mantentze-gastuak ere. Hala eta guztiz, horrelako gastuak diruz lagundu ahal izango dira gehienez dirulaguntzaren kopuru osoaren % 10eraino, zeharkako gastu gisara, baldin eta frogatzen bada jarduera aurrera eramateko beharrezkoak direla, nahiz eta jarduerari zuzenean ezin inputatu.

BEZ kengarriaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundu, erakunde onuraduna behartuta dagoenenan zerga horren aitorpena egitera. Kasu horretan gastu gisara inputagarria den kopurua egiaztagirien zerga-oinarriari dagokiona izango da.

5.- ORDAINKETA

Lehen ordainketa diruz lagundutako kopuruaren % 90ekoa izango da eta elkarteak dirulaguntza ematearen ebazpena behin eginda jasoko du.

Bigarren ordainketa izango da diruz lagundutako muntaren % 10ekoa eta elkarteak 2019ko azaroaren 18an baino lehen jasoko du, aurretizko zuriketa eginda. Ordainketa gauzatuko da dagokion zuriketa-kontuaren bidez, Dirulaguntzen Lege Nagusiko 30. artikuluan eta lege hori garatzen duen araudiaren 75.ean ezarritakoari jarraikiz.

6.- AZPIKONTRATAZIOA

Diruz lagundutako jarduera ezin izango da azpikontratatu. Hau da, onuradunak ezin izango du kontratatu hirugarren batekin diruz lagundutako jardueraren egikaritze osoa ezta partziala ere. Kontzeptu horretatik kanpo geratuko da diruz lagundutako jarduera burutzeko elkarteak berak egin behar dituen gastu beharrezkoak (Dirulaguntzen Lege Nagusiko 29. artikulua).

7.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmena indarrean egongo da sinatzen denetik jarduera garatu eta burutu arte eta, edonola ere, 2019ko ekitaldian, jarduera 2019an egin behar da-eta.

8.- BESTELAKO BETEBEHARRAK

Hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak ez ezik, elkarteak hauek ere bete beharko ditu:

- Garbi adieraziko du kultur elkartearen jarduerak Portugaleteko Udalak diruz lagundu edo babesten dituela, jarduerari buruzko esku-orri, afixa, propaganda eta informazio grafiko, idatzi eta soinuuzkoaren ale guztietan.
- Portugaleteko Udala bertaratu ahal izango da jarduera aurkezteko jendaurreko ekitaldi guztietara, hala Portugaleten nola beste edozein herritan.
- Kultur elkarteak, hasierako proiektuan aldaketarik eginez gero, horren berri emango dio Udalari, gainbegira dezan.
- Kultur elkarteak behar dituen baimen guztiak eskatuko dizkio kasuan kasuko administrazioari, hitzarmen honetako jarduera antolatu ahal izateko.



- Dirulaguntzaz gain, Portugaleteko Udalak, bere ahalmenen eta baliabideen eremuan diharduelarik, eta alde zuzenetik idatziz eskatuta, baliabide material eta logistikoak ere jarriko ditu Portugaleteko Folklore Jaialdi Nazioartekoaren 45. edizioa antolatzearen zerbitzura.

9.- DIRULAGUNTZA ITZULI BEHARRA

Elai-Alai Kultur Elkarteak, hitzarmena bete nahian, konpromisoa bereganatu du, jasotzen duen dirulaguntza itzuli egingo duela, horretarako eskakizun edo beharretakoren bat bete ezean eta, beti ere, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2008 Lege Nagusiko 37. artikuluko ustezkoetako bat bete ezean.

Dena dela, jasotako dirulaguntzetatik eta beste jatorri batzuetatik lortutako finantzaketaren kopuru osoa ezin izango da jardueraren kostua baino altuagoa izan. Baldintza hori bete ezean, jasotako gehiegizkoa itzuli beharko du elkarteak.

10.- DIRULAGUNTZA ZURITU

Dirulaguntzaren zuriketa egingo da 2019ko azaroaren 18a baino lehen, zuriketa-kontuaren bidez, Dirulaguntzen Lege Nagusiaren 30. artikulua eta lege hori garatzen duen araudiaren 75. artikulua ezarritakoari jarraikiz. Kontu horren barruan egon beharko dute eskuragarri dokumentu hauek :

- 1- Jardueraren gaineko oroitidazki bat, dirulaguntza jasotzeko beharrak bete egin direla zuzentzeko. Oroitidazki horrek burutu diren jarduerak eta horien emaitzak adierazi behar ditu.
- 2- Diruz lagundutako jardueraren gastu eta dirusarreraren balantzea.
- 3- Jardueraren gastuen sailkapen bat, hauexek identifikatu behar dituelarik: hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa data. Dirulaguntza eman bada balioztutako aurrekontu baten arabera, suertatutako desbiderapenak adierazi beharko dira. Gastuak eta egiaztagiria dirulaguntza eman den urte naturalekoak izan beharko dira.
- 4- Portugaleteko Udalak emandako dirulaguntzaren kopuru osoa zuzentzen duten faktura originalak. Faktura horiek estantilatuta egon beharko dute eta adierazi beharko da zenbatekoa egotzi den erabat ala partzialki dirulaguntzari eta beste dirulaguntza batzuekin bilduta egonez gero, azaldu beharko da halaber zein ehunekotan. Originalak itzuliko zaizkie interesdunei behin diligentziaz eta horien kopia konpultsatuta geratuko dira txostenean.
- 5- Publizitate grafiko, idatzi eta soinuzkoaren aleak.
- 6- Aurkeztutako gastuen egiazkotasun-ziurtagiria.
- 7- Jarduera diruz lagundu duten beste dirusarreraren edo dirulaguntzen azalpena, jatorria eta zenbatekoa barne.



11.- ZEHAPEN-ARAUBIDEA

Onuraduna Dirulaguntzen Lege Nagusiaren IV. tituluan ezarritako erantzunkizun eta zehapen-araubidearen menpean geratuko da. Legearen araudiaren IV. tituluak garatu du araubide hori.

12.- HITZARMENA BALIOGABETZEKO KAUSAK

Hitzarmen hau baliogabetzeko kausak hauexek dira:

- Alderdietako batek hitzarmeneko arauetakoren bat ez betetzea.
- Bi alderdiak ados egotea hitzarmena baliogabetzeko.
- Hitzarmenean edo beste lege aplikagarrietan dauden beste kausa mota.

13.- ARAUDIA

Entitate biek bete beharko dute hitzarmena eta, hitzarmenak aurreikusi gabeko guztian, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2008 Lege Nagusia, horren araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia, eta aplikagarri zaizkion lege eta arau indarrekoak ere bai.

Hitzarmen honetan ezarritakoarekin ados daudela adierazteko, euren eskumenak darabiltzatelarik, alderdi biek izenpetu dute hitzarmen honen bi ale, esandako egunean eta orduan.

Por *Elai Alai Kultur Elkartea*,
el representante de la entidad
Aitor Beitia Gorriaran
Elai Alai Kultur Elkartearen
ordezkaritzan

Por el *Ayuntamiento de Portugalete*,
el Alcalde-Presidente
Mikel Torres Lorenzo
Portugaletako Udalaren ordezkarietan
Alkate-udalburua